

# Asisko gutuna

2014ko Ekaina. 4. printzipioa. Bidea elkarrekin egin, anaitasunez bizi

68. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Frantziskotar espiritualtasunaren oinarrizko printzipioa da anaitasuna, senidetasunean bizitzea. Zenbat bider ez ote zaigu esan senideak garela, baina ez gara ohartu zer esan nahi duen esaldi horrek.

Esan ohi dugu gurasoek ez dutela beraien seme-alaben akatsik ikusten, baizik beraien balio edo ontasunak soilik. Senidetasuna eraikitzea horixe da: gizaki bakoitza anaia, neba, arreba edo ahizpa bezala ikustea. Eta bakoitzarengandik jasotzen dugunaz gozatu. Jaikoak berak jarri dizkigun bidelagunak ditugu..

## Gogoetarako gaia

### *Alde onari begiratu.*

Irakaskuntza-mundutik eta batez ere heziera-psikologiatik etengabe errepikatzen zaigu premiazkoa dela haurrengan alde ona azpimarratzea alde txarraren orde. Esaten zaigu pertsonak gehiago hazten eta hezten garela hartzen ditugun bultzagarri eta animoen bidez, egiten zaigun kritikagatik baino.

Beraz, geure pentsamendua eta begirada aldatzean dago gure ikaslana. Pertsonak, pentsatzen ditugun bezala ikusten ditugu. Norbaiti buruz ongi pentsatzen badut, bere alde ona ikusten dut; gaizki pentsatzen badut, aldiz, haren alde txarrari soilik begiratzen diot.

Hor dugu ikaslana: pixkanaka, egunez egun, begirada eta pentsamendua lantzea, helmuga eta erronka txikiak geure buruari jarriz. Aldi bakoitzeko bat edo bi. Eta gero poztu ikasitakoarekin.

Zenbat aldiz esaten digun Jesusek: “Ez egin juzkurik”!; nolako pastaz eginak gauden ez baleki bezala, gure hutsegiteak eta miseriak ... ezagutuko ez balitu bezala. Eta horrela ere beti animatzen, beti esperoan, are baztertu edo ukatu egin duten haiengandik ere. Zenbat hitz adore emaile!

Jesusek badaki ikasleengan eta hurbiltzen zaion jendeagan ahalbideak ikusten, beraiak ezagutu ezin dituztenak ere. “Nik egiten ditudan egintzak egingo dituzue, eta are handiagoak”.

Hori da senidetasuna eta anaiartea eraikitzea: Jainkoak bidean jarri dizkigun anai-arebekiko mirespenez beteta bizitzen ikastea. Alde ona balioztatzen, adore ematen, espero izaten, miresten ... ikastea; eta kexa eta kritikak zoko ilunean uztea.

## Ebanjelioko pasartea: Mt 7,1-6

Ez gaitzetsi inor Jainkoak ere ez zaitzaten gaitzets; izan ere, zuek besteak nola epaitu, hala epaituko zaituzte Jainkoak, eta zuek zein neurritz neurtu, neurri beraz neurtuko zaituzte Jainkoak. Nola ikusten duzu senidearen begiko lasto-izpia eta zeure begiko hazag ohartzen ez? Eta nola esan diezaiokezu senideari: “Utzi begian duzun lasto-izpia ateratzen”, zuk zeurean haga duzula? Itxurazalea hori! Kendu lehenengo zeure begitik haga, eta orduan ikusiko duzu garbi, senidearen begitik lasto-izpia ateratzeko. Ez eman zakurrei gauza sakratuak, zeuen kontra itzuli eta zatika ez zaitzaten; ez bota txerriei zuen harribitxiak, hankapean erabil ez ditzaten.

## Frantziskotar espiritualtasuna

Eta gorde bitez anaia guztiak, ministro eta morroiak nahiz besteak, anaiaren bekatua edo gaizki egina dela eta asaldatu edo haserretzetik, bat bakarraren hobenez asko hondatu nahi baititu deabruak; baizik eta bekatu egin duenari lagun biezaiote espiritualki, ahal duten ongien, ez baitute osasundunek behar sendagilea, gaixoez baizik (1 Er 5,7-8).

Besteek gaizki egiten dutenagatik asaldatzea eta haserretzea da errazena; baita geuk ondo egiten ez dugunagatik ere. Geure izaeratik datorkigu begirada haserretua besteen hutsegite eta erroreak direla eta. Frantziskok ohartarazten digu, orduan atea irekitzen dizkiogula deabruari, geure harremanak hausturaz eta deabruz betetzen, bakea galtzen eta geure barrena hondatzen.

Horregatik bere eskaintza ebanjelioaren arabera da: osasundunak ez baina gaixoak behar dute medikua, hau da, senide errukitsuak, gaizki-egina dagoen lekuan ontasuna jartzeko, eta errorearen lekuan konprentzioa ...

## Otoitza

Bizitza aukera bat da, atera iezaiozu probetxu.

Bizitza edertasun da, mirets ezazu.

Bizitza zoriontasun da, senti ezazu.

Bizitza amets bat da, bihur ezazu errealitate.

Bizitza erronka bat da, egiozu aurre.

Bizitza betebeharrak bat da, bete ezazu

Bizitza joko bat da, joka ezazu.

Bizitza preziatua da, dasta ezazu.

Bizitza aberastasun da, gorde ezazu.

Bizitza maitasun da, goza ezazu.

Bizitza misterio bat da, jar iezaiozu muina agerian.

Bizitza agintzari bat da, bete ezazu.

Bizitza tristura da, gaindi ezazu.

Bizitza abesti bat da, kanta ezazu.

Bizitza borroka da, onar ezazu.

Bizitza tragedia da, aurre egiozu.

Bizitza bizia da, defenda ezazu

Bizitza abentura da, hel iezaiozu.

Bizitza zortea da, bila ezazu.

Bizitza hagitz preziatua da, ez ezazu desegin.

Kalkutako Teresa

## Gutuneko azken hitzak

“Maita ezazue elkar bihotzez senide on bezala, elkar nork baino nork maiteago izaten saiatuz” (S. Paulo)

## 2014ko ekaineko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen daukate ekaineko erreferentzia guztiak:

1 Mt 28, 16-20

2 Jn 16, 29-33

3. Jn 17, 1-11a

4 Jn 17, 11b-19

5 Jn 17, 20-26

6 Jn 21, 15-19

7 Jn 21, 20-25

8 Jn 20, 19-23

9 Mt 5, 1-12

10 Mt 5, 13-16

11 Mt 5, 17-19

12 Lk 22, 14-20

13 Mt 5, 27-32

14 Mt 5, 33-37

15 Jn 3, 16-18

16 Mt 5, 38-42

17 Mt 5, 43-48

18 Mt 6, 1-6. 16-18

19 Mt 6, 7-15

20 Mt 6, 19-23

21 Mt 6, 24-34

22 Jn 6, 51-58

23 Mt 7, 1-5

24 Lk 1, 57-66. 80

25 Mt 7, 15-20

26 Mt 7, 21-29

27 Mt 11, 25-30

28 Mt 8, 5-17

29 Mt 16, 13-19

30 Mt 8, 18-22

Ekainean elkarrekin ospatuko dugun otoitza 26an izando da 19:30tan

Geure web gunea bisitatu

www.asissarea.org

Asis Sarea

646 21 48 96